


# Antzarak perratzen

## Il segno italiano

A skoren ustez dena dago jadanik idatzita eta ez dago patuaren indarretik ihes egiterik. Kasualitatea edo patua izan, ondoren kontatuko dizuedana ez da istorio bat, historia baizik nahiz eta sinesgaitza dirudien.

Jakitunen esanetan kontakizun bat hasteko zentzuzkoena hasierara joatea da. Kasu egingo diet bada. Luca D'Ascia Gottia historialari italiarra nola ezagutu nuen eta zein zirkunstantzian azaltzea interesgarria litzateke, bera baita, ez ni, ondoren argiratuko ditugun berrien iker-tzailea. Gezurra badirudi ere, ia hogeiterteko ikerketa lana behar izan du ondorio hauetara iristeko!!!

1992 ko abuztua zen eta Loiolako santutegian ari ginen lanean ETBko programa bat grabatzen.



Jorge Mario Bergoglio eta Koldo Leniz Loiolan, 1992.

Mahai batean eserita, liburu zahar eta paper-sorta artean ikerlari gazte bat ziharduen lanean buru belarri. Gure tresnak batzen ari ginela, fraide jesuita bat sartu eta bere azentu argentinar erakargarriarekin deitu zion "Goitia, ¿vos no comés hoy?). Ez zen Goitia, Gottia baizik eta jesuita hura, nor izango? Jorge Mario Bergoglio Sívori-Gottia gerora Francisco Aita Santua dena -baina hori beste istorio bat da-

"Goitia" abizena entzun nuenean, segidan hurbildu nintzaion iker-tzaileari Lekeitiorekin zerikusirik zuen galdetuz. Laister argitu zidan "gaztilieraz", hau da, gaztelania eta italieraren nahasteaz, Goitia baino Gottia zela.

D'Ascia doktore-tesia egiten ari zen Rotterdameko Erasmus filosofoari buruz eta Bergogliok, orduan Buenos Aireseko gotzain-laguntzailea, jesuita, senitartekoa izanik, lana erraztu zion Jesusen Konpainiako artxiboan ikertzeko (hau da, ukondoa eta entxufea, biak zituen Lucak!).

Ez zen tesiarena D'Asciaren asmo bakarra Euskal Herrian, bere arbasoen arrastoa ere aurkitu nahi zuen. Erroman jaioa izan arren, bere familia jatorriz Venetokoa zen. Ospe eta aberastasun handiko familia noblea garai batean, Lucak bazekien Gottiatar batzuk Lekeitio inguruan finkatu zirela XVI. mendearen hasieran.

Bere osabarekin mate pare bat hartu eta gero, garagardo pare bat hartzera gonbidatu zidan Lucak. Euskaldun bat gonbidapena itzuli gabe geratzeko gai ez denez, pare bat izan behar zuena dozena bat bilakatu zen. Zer den gaztea izatea! Irailaren 4a izanik, Lekeitio egun batzuk pasatzera gonbitzea okurridu zitzaidan eta, patuaren eraginez, han aurkitu zuen Lucak bere burua ostiral batetan Trama enologo taldearekin euskal kultura barru-barrutik ezagutzen. 1992ko "Antzar egunean" Luca D'Ascia Gottia Lekeitio zegoen...

Orduztik gero harremanetan egon gara urte guzti hauetan. Noiz behinka Lekeitio etorri izan da bere ikerketak egitera eta bere emazte ondarrutarraren senitartekoak bisitatzeraz (Zabala-Arrizabalagatarrak). Baina hori ere beste istorio bat da...

Pare bat urte pasatu dira ez hankarik ez bururik duen karta bat idatzi zidala -hori pentsatu nuen orduan-. Gutun oso luze bat zen, *gaztilieraz* idatzita zegoen. Ondorengo idatzia gutun haren laburpena da (ez ditut jarri data eta beste adituen aipu txirriporro guztiak; euskaratu badut ere, saiatu naiz euskara garbi eta akademikoa ez erabiltzen, jatorrizko gutunak duen grazia gutzia ez galtzeko).

Kaixo, caro amico Coldo (sic):

*Muchas grazias di averme ospitato en la tu casa aquel maraviglioso estivo.*

Gutun honetan aurki ditzakezun aurkikuntza eta teoria harrigarriak egun haietan hasi ziren erretzen. Ez dut sekula ahaztuko zuen lagunza, ezta hango neschia polita (sic) eta calimaccioa (sic) are gutxiago (itzultzai-learen oharra: kostatu zitzaidan "kalimotxoaz ari" zela konturatzen).




“Liber Chronicarum” Hartmann Schedel, 1493. Nuremberg

Esan nizun bezela, gure familia Veneziako familia nobile eta aberatsa izan zen garai batean. Zoritxarrez (oh, cavolo!) aspaldiko kontuak dira. Merkataritza zuhurra belaunaldi askotan zehar, XV. mendearen amaiera arte familia ahaldua izan zen, baina Otomandarrak batetik eta Aita Sanduak (Santo Padre-padrone!) bestetik ederto izorratu gintuzten. Veneziatik Veronara alde egin izan behar genuen. Orduztik gero gure familiaren indarra eta dirua (non si tratta di analoga cosa?) aldapan behera erori ziren. Ohorea ez dugu sekula galdu baina ondasun gehienak bai. Jajaja...

Nire aita zaharraren etxeko liburu zaharrak (dena da zaharra gure etxe zaharrean) altxor preziatuak izan dira beti gurean. Nahiz eta titulu ofiziala unibersitatean jaso, etxeko liburutegi ilun eta umel hartan egin nintzen ni historialari. Liburu ederrak eta dokumentu ulertezinak genituen oraindik... Denetatik maiteena Pietro Bertelliren “Diversarum nationum habitus”, 1589ko edizio zoragarri bat nuen. Grabatuz josita, irudi guztietatik bat nuen (eta dut) gogoko bereziki: Venezia maiteko kanal batetan, soka batetik zintzilik zegoen txori batenganantz zihoazen gazte batzuk



Tramanakuak antzarretan



Palazzo Ducale.

txalupa batean, "Anser in Fluvi ex fune auferendus" da bere azpitudua. Ez nion zentzurik aurkitzen baina oso suggestiboa zen.

Zuen txalupan sartu nintzenez, hainbat aldiz ikusitako irudi bera agertuko zitzaidala ez zegoen nire ametsik eronean ere. Zure koadrilako batek baino gehiagok pentsatuko zuen nire harridura eta emozioa calmaccio-aren eragina zirela. Orduantxe bertan erabaki nuen: Tornatu behar nintzen berritoki Italiara eta misterio hori argitu! Eta han zelan agertuko zen nire moduko italiari-macaronni bat (zure stronzi e mascalzoni koadrilako ki-deek bateatu ninduten bezala, Fresnedoren inizatibaz) eta esan eszena hura ez zela hangoa, kanpotik ekarria zela ohitura lekeitiar zahar hura. Mamma mia, Camorrek harrapatzea nahiago!

Urte guzti hauetako ikerketen ondoren gauza bat ziur badakit, asko sentitzen dut Caro amico Coldo baina... **ANSAR-JOKOA VENEZIARRA DALA DA!** Lasai, ez aztoratu horrenbeste, frogatzen daukat; "Chi presto parla, poco sa" esaten dugu hemen, baina ez da kasua.

Zuen kontu-liburuetan aurkitu ditudan daturik zaharrenak 1631ra hurbiltzen gaituzte, nik, berriz, Veneziako Palazzo Ducaleko agiritegia 1204-ko aipamenak aurkitu ditut. Marco Poloren liburuan bertan ere aipatzen da antzar-jokoa!

Laugarren Gurutzadan nire arbasoen flotak Constantinopla sakeatzen lagundu zuten. Hura sarraskia Bitzantziar Inperioaren amaiera! Zer esan dezaket? Ezaguna den modura "Non si fanno frittate senza rompere la uova!". **Bapatean** veneziarrok aberastu egin ginen, pobreak aberastu eta aurretiaz aberatsak ginenok, oraindik aberatsagoak. Garaipena os-



"Constantinoplako sakeoa" 1204. Tintoretto, 1580.

Zer garrantzitsua izango zen ia 400 urte beranduago halako kategoria zuen artistak pintatzeko!

patzeko antolatu ziren ekintzen artean antzar-jokoa zegoen; ezin jakin bertakoa edota Constantinoplatik ekarritako ohitura bazen, beste altxorren artean.

Harro zaudete zuen jaiekin: San Pedroak, aspaldiko San Rokeak, Iha-terriak... San Andolineta zer esanik ez! Horiek atzo goizeko kontuak dira ragazzo! 1740. urteko idatzi anonimo batek dioen modura, San Antolin jaia bera baino garrantzitsuagoa zen San Roken omenez ospatzen zena Lekeition. Santa Elena basilizaren izen osoa "Santa Elena eta san Roke" da, idea bat egin dezazun. Andolin Deunak ez du basilizarik ordea. XVIII. mende hasieran, bi jaiak ospatzeko dirurik ez zegoenez, zotzetan egin zen eta Andolin Deuna atera zen Lekeitioko zaindari. Jakingo duzu San Rocco Frantzian jaioa bazen ere, Italian zehar lanean ibili zela izurritearen aurka. XIV. mendeko kontuak dira hauek, orduko eta bertakoa ote da hainbatetan entzundako atsotitza? "Il cane di san Rocco non fa coda perche il Dogo d'Venezia -ez Ramone Ramirez- e fregga robba".



SCUOLA DI S. ROCCO

Architettura di Sebastiano Serlio

ojo ala Nota

Hartu arnasa, antzar-jokoarena konturik txikiena baita: Lekeitio izenak, "leku-ito" esan nahi omen du... ma, a banda di mascazoni! Nor "ito", nun "ito", zer "ito"? Herri inguru guztia zabal-zabala da ta! Berriro esan beharko dugu "Chi presto parla, poco sa". Beste ustezko jatorri bat ere aurkitu diozue izenari: "Lea-kai"; ma... azalpen horretan, non geratzen da "tio", paassaaa tiiooo? (erabiltzen duzue esamolde hori oraindik edo pasa da modatik gazteen artean?)

Beste pare bat datu bitxi, ezusteko potolora zuzendu aurretik: batetik, gaur egun akaso ez, baina garai batean Lekeitio jai gogokoan ihauteriak ziren, Carnivale-enganako zaletasuna ere guretik dator, Venezia-tik! Bestetik, San Marcos Veneziako patro handiaren omenez, apirilaren 25ean, San Juan Talakon meza ospatzen zuten, ondoren itsasoko urak bedeinkatuz (bai, badakit gaur egun meza ospatzeko baino zirriak egiteko nahiago duzuela erabili San Juango basiliza...).

Oin dator benetako bomba: bidali dizudan Venetoko mapan begiratzen baduzu, iparraldean, ia Austriako mugan kokatuta, Lecquiotto izeneko herrixka bat aurki dezakezu. Nire arbasoen noblezia-tituluen artean Lecquio e Chiaspio kondetzak zeuden; ez da azkarregia izan behar Lecquiotto eta Lequeitio izenen arteko lotura ikusteko. Begira ezazu berriro Venetoko mapan: gauza bera pasatzen da beste herri edo leku batzuen izenekin: Mendezza, Amorotto, Vedaronia, Gardetta, Kruzzia, Ogletta, Garrazzo irla, Isuinza, Lumeinza... Ez dirudi kasualitate hutsa izan daitekeenik, ez da hala?





“Cristobal Colón” Sebastiano del Piombo, 1519. Metropolitan Museum of New York

Cristoforo Colombo Genoarraren garaira joan beharko dugu azalpen bila.

XV. gizaldiaren lehenengo hamarkadetan portugaldarrak Azoreetan eta Madeiran finkatu ziren. Colombo, edo Colon nahia-go baduzu, portugaldarrekin nabigatutakoa zen eta Madeirako gobernadorearen alabarekin ezkondu zen. Bitxikeria bada ere, esan beharra dago Colonen emaztea, Felipa Moniz, jatorri euskalduna zuela (Lemoniz- Gortiz-Plentzia, inguru horretakoa zen bere aitaren familia). Portugal eta Portugalete azken finean, etimologikoki ari bagara, gauza bera dira.

Madeiran zegoen garaian gertatu zen

1606an Garcilaso de la Vega “faltsuak” (alias el Inca-k) bere “Comentarios Reales”-etan kontatu diguna: Prenauten istorioa. 1484. urtean Kanarietatik Madeirarantz nabigatzen omen zihoan itsasontzi bat, ekaitz izugarri batek jitoan eraman eta bere noraezean gaur egungo Santo Domingoko kostalde-raino iritsi omen zen. Colonen lehenengo bidaia baino 9 urte lehenagoko kontuez ari gara. Suspertu ondoren, lortu zuten berriro Madeirara bueltatzea baina bost baino ez ziren bizirik atera. Colonek berak babestu zituen. Nagusia, Huelvako Alonso Sanchez omen zen; besteak euskaldunak ziruditen “pues hablaban en dialecto Vizcayno”. Bitxia bada ere inork sekula ez du egiaztatu Alonso honen izatea. Nire ustez Iñigo de Arteita lekeitiarra da izen horren atzean izkutatzen zena. Badakit berriz ari zarela nire osasun mentala zalantzan jartzen. Segi irakurtzen, txo! Colonek ez zuen behar besterik Arteitak kontautakoa baino bere Indietara joateko proiektuari eusteko. Nola justifikatu nire susmoa? Ba, Arteitari Errege-Erregina Katolikoek eman zioten erregalia izugarriengatik:



“Viaje de los prenautas” Leintz?, circa 1484. Museo Precolombino de Santo Domingo. Batzuen ustez falsifikazioa, aldiz, karbono 14ko frogak behintzat orduko zela baieztatu dute. Leintz egilea ezagutuko bagenu...



“El almirante Iñigo de Arteita” unknown author. London National Gallery. Ez dugu dudarik, estiloa kontuan izanda, beneziar eskolakoa dela eta zergatik ez, Belliniren batek egina.

1. Arteitaren itsasontziak Mediterraneoan zehar eta Kanaria irletarako ibilbidean nabigatzen zebiltzan merkataritza eta merkataritza ez den lan ezkutuetan, Iñigoren agintepe zuzenean sartuta.
2. Arteita buru-belarri sartu zen Colonen proiektua sostengatzen, influentziak mugituz, dirua jarriz..., Iñigo de Arteita beste edozer baino lehen



“La Corte de los Reyes Catolicos” Egile ezezaguna 1493. Guadalupeko monasterioa. Adituek hori Colón dela uste izan arren, benetan Iñigo de Arteita da ikusle besterik ez dago triptikoan (146. orr.) ageri den Nicolas eta Iñigo hau.

finantza-gizona zen. Nola pentsatu holako saltsetan sartuko zenik ondo baino hobeto jakin izan ez balu irabazi segurua zeuzkanik! Ez ahaztu Isabel eta Fernandoren aholkulariek inozkerizat hartu zutela Colonen ametsa.


3. Errege-Erregina Katolikoek flotako kapitain jenerala izendatu zuten Arteita almirantea. Bere aurpegi politagatik? Ez horixe, egindako zerbitzuak ordaintzeko baino. Aldiro itsas-lapur lanetan ibiltzea gustatzen zitzaion gure itsasgizon lekeitiarrari baina beti parkatzen zioten.

4. Beste lau prenauta euskaldunak sifiliak jota hil ziren, badirudi lurralde haietan ez zirela kitarrajotzen bakarrik egon. Arteita oso katolikoa zen eta infernuari zion beldurrak salbatu zuen. Lekeitiarra gainera! Simancaseko artxiboan aurkitu ditudan kronikek diotenez XV. eta XVI. gizaldietan lekeitiar ligatzaileak eskuetako hatzamarrekin konta zitezkeen (Garcilaso Inkak dioen bezela, “Sanchez-Arteita” benetan Huelvakoa izan balitz, sifiliaz kutsatu gabe ez zen bueltatuko, ziur egon!)





Zergatik ari naizen hau guztia kontatzen? Ba Coloni ordurarte inork ez ziolako kasurik egiten; beraz, Arteita bapatean bere influentziapean zauden hariak mugitzen ari zen, finantza-gizon ausarta baitzen (ausartegia akaso, "Con un cavallo dóro si va per tutto il mondo"). Marionetak dantzan jarri zituelarik, gorteko goi mailako funtzionarioa zen Luis de Santangel-en (Santangelo) atea jo zuen lehenik eta bereala artekari lanetan jarri zuen. Hau, bere erkide ziren Francesco Adamo Di Argazza merkatari Veneziaarraren eta Juanoto Berardi finantza-gizon Florentziarraren izenean bildu zen Colonekin. Izan ere, denak ziren, Iñigo de Arteitaren bazkide, adiskide eta, behin baino gehiagotan, lehiakide. Horrela diru arazoa konponduta geratu zen, merkatari eta kortsarioen artean baigenbiltzan:



"Francesco Adamo Di Argazza, Il comte di Baneuco" Ioannes Bellinus (Giovanni Bellini), circa 1491. Gallerie dell'Accademia, Venezia



"Gurutzetik eraistea" Santa Luziaren Legendaren maisua, circa 1480-90. Non-dik dabil? Batek daki, oraintsura arte Uriarte jauregikoan eskuetan. Brujasko artistak, Iñigoren gurasoak, Nicolao eta Marina, otoiitz egiten irudikatatu zituen.

bi miloi marabedi ez zen hainbesterako! Errege-Erregina Katolikoek ere negozioa egon zitekeela usaindu zutenean, azkar eman zioten baietza us-tezko proiektu zoro bat zenari (Capitulaciones de Santa Fé, 1492). Colonek gidatu zuen naoa Santa Maria deitzen zen, Lekeitioko herriko eliza nagusia bezela; tripulazioa ere bere parajekoa zen batez ere, kantabriar eta asturiar banaka batzuk ere bazeuden baita huelvarren bat ere, baina gehiengo euskalduna zen, asko lekeitiarrak eta ispasterarrak. Ezagunena "Txatxo", -Juantxo- (nola liteke kaia baino besterik ez izatea un'impresa veramente incredibile hori gogoratzeko).

Ez duzu ikusten Iñigoren eskua guzti honen atzean? Kasualitatea edo pribilegioa ote da 1491n Arteita "carraca" izeneko itsasontzi mota hori eraikitzen hastea Lekeitioko ontziola batean Errege-Erregina Katolikoek babesarekin, hain zuzen Korrejidoreari zergarik ez kobratzeko aginduta? Guztia borobiltzeko 1492an beste nao bat eraiki zuen Arteitak Genovan, Colonen jaioterrian, eta nola ez, gortearen babesarekin hura ere. Espainiar esaten duten bezala, "Bianco e in boteglia,..."


Arteitarrak ospea ez, baina diru ederrak atera zituen negozio indiano hartatik eta Francesco Adamo di Argazza horri ere ez zitzaion gaizki joan Ispaster-Lekeitio aldean finkatzeko baimena eman baitzioten, baita hainbat erregalia eta pribilegio ere. Baina hori beste istorio bat da, detailetxo bat bakarrik: Adamo Di Argazza / Adan de Yarza... eta hor utziko dut.

Molte ricordi per ti e para tutta la tua famiglia. Tu amiico...  
Luca D'Ascia "Goitia"  
(Roma, 28-12-2012)



"Degli habiti antichi e moderni de diversi parti di mondo" Cesare Vecellio, Venezia, 1590

Saltzaile beneziar horrek daramatzan antzarrek beharbada Lekeition amaituko zuten!



Diversarum nationem habitus Pietro Bertelli, 1589.  
 Azpitiituluua: **Anser in Fluvi ex fune auferendus**  
 Nork uka dezake Antzar jokoaren aurean gaudela?





Luca D'Ascia Gottiare gutunak hogeita bederatzirorrialde ditu guztira. Ondorengo horrietan italiarrek gure artean izan zuten eraginaz ari da. Eliza nagusiko Amazeruratzearen erre- taula flamendarra izan arren, Lucaren ustez amabirginak Veneziako Santa Maria dei Frari elizan dagoen amazeruratzearen pinturaren eragin argia dauka.

Zelan ez Venetako D'Ypastero, Amorotto, Gardatta, Vedaronia eta Lecquiotto herriak, besteak beste, Lea-Artibain dauzkaten "bizkiekin" erlaziona-

zaten ditu. Francesco Adamo Di Argazzarekin beste italiar batzuk etorri ziren, Gottiatarrak artean zirelarik. Ekarri zuten antzar-jokoak, zelan ez, gu bezalako pertsona sentiberen artean izugarriko arrakasta izan zuen eta Venezian ez bezela, gaur egun arte iraun du.

Baina bitxikeria handienak niretzat, Colon, Arteita eta Adamo Di Argazzaren pelikula guztiak baino bitxiagoak izan dira bi gauza jakitea: Goitia abizena italiako Gottiatik datorrela eta "tramano" friuleraz (Venetoko iparraldeko hizkuntzan) hiru barrabileko abereei deitzen dietela. Toma castagna e manda uovi!



"Giussepe Gottia". Gentile Bellini, circa 1489. Gallerie dell'Accademia, Venezia



"Constantinopla", Civitates Orbis Terrarum, Georg Braun, Franz Hogenberg, 1572

Gutunaren posdata ere Biblia bera baino luzeago zen, denetarik agertzen ziren: latinezko esaerak, bibliografia eta abar. Ez dugu luzatu nahi, baina datu pare bat aipatzekotan:

-Telesforo Aranzadi zenak antzar-jokoa Alemaniako Ulm hirian ere ospatzen zela idatzi zuen "Euskalerrriaren alde" aldizkarian, Venezia hiriarekin senidetuta baizegoen.

-Badago beste datu oso aipagarri bat: hasieran ansara barik arranoa jartzen omen zuten zintzilik. Zergatik arranoa? Ba hegazti hau Bizantziar inperioaren sinbologia zelako. Veneziarrek Laugarren Gurutzadan Constantinopla konkistatzean inperioa suntsitu zuten eta handik gerora arranoari lepoa edo kokota kenduta Constantinoplako menderatzea ospatzen zuten. Arrano-jokoa zen, beraz. Arranoekin jarraitzea ez zen oso praktikoa (ezta ekologikoa ere); zer egin zuten? Oiloek ez dute ez glamourik ezta fama onik, baina ansarak badute xarma moduko zertxobait. Eta halaxe da lekeitiarrek, tutik jakin gabe, inperialismoaren aurkako ekimena burutzen ari direla irailero, hilabetearen bostgarren egunean.



"Degli habiti antichi e moderni ... " Cesare Vecellio, Venezia, 1590

Arranoa eta antzarraren teoria balioztatzen du grabatu honek. Turkoek, 1453an akabatuko dute, oraingoan betirako, Erromako inperioarekin eta nola erakutsi? Pues, arranoari burua kenduz eta hegoak trofeo bezala erakutsiz. Lehenago, 1205ean, beneziarrak antzekoa egin zuten eta Paleologoaren dinastiak agintea berreskuratu bezain laster arranoari buru bat barik bi ipini zizkion (azken finean ezertarako ere ez).

Dagoeneko irakurle bat baino gehiago adarra jotzen ari naizelakoan egongo denez Wikipedian aurki dezakeen bibliografia agertuko dut.

LUCA D'ASCIA GOTTIA (Roma, 1964). Historiako eta Filosofia politikako katedratikoa; gai etno-kulturaletan aditua. "Erasmus e l'umanesimo romano" 1991, "Maquiavelo eta bere interpretatzaileak" 2004 eta "Esquirlas de Chiapas" 2005 besteak beste.

Joan den Urrian Lucak Erromatik deitu zidan ustekabeko opari bat egiteko: Erromara joateko gonbitea. "Il Paese Vasco, Il Segno italiano" erakusketa ("Euskal herria, italiar aztarna"), antolatua zuen "Il Gesù" jesuiten elizaren erakusgelan. Handik Veneziara eta Veronara eramango omen du erakusketa eta Gasteizera eraman aurretik Lekeitiara ekarriko du, Aste Santuaren bueltan, Konpainiako elizan jarriko dute.

Idatzi hau moldatzeko baimena eman zidan eta laburtzeko nire kontuan utzi. Ezer berezirik gehitzea nahi bazuen galdetu nionean, hau esan zidan hitzez hitz:


"Eskerrak emotea besterik ez zait geratzen: zuri lehenengo eta bat, zuregatik ez balitz ez nuelako ezagutuko ez antzar-jokoa ez calimoccio-a, ez gaur egun nire seme-alaben ama eta emazte ohia den "neschia polita" hura. Gero, noski, Lekeitio lagundu didaten guztiei. Bereziki aipatuko nituzke Pistolas eta eta Koji historialariak eta beraiekin merezidun lanetan lagundu zigun Aitor Leniz historialari hasiberriari, "calimocci"o eta bokata ederrak prestatzen zituenari. Nola ez udaleko eta parrokiako artxiboetako arduradunei, Maite eta Benitori.

Azkenik, Aldundian, Eusko Jaurlaritzan eta Bizkaiko Elizaren Artxibo Historikoan lagundu didaten guztiei nire eskerrik zintzoenak. Simancas-ko artxiboko langile batzuk ere ez nituzke ahaztu nahi (baina gehienak bai) jajajaja..."

**Erredakzioaren oharra:** Kurik aldizkaria ondarea babesteko eta ezagutarazteko sortu izan zen eta ahal izan duen neurrian historialaririk onenekin kontatu du. Koldo Leniz aspaldi ezagutzen genuen eta konfidantzazkoa zirudien artikulu hau gure eskuetara heldu arte. Ez diogu Luca horri meriturik kendu nahi, baina gure ustez lekeitiarra izan nahi zuen, ulergarria bestalde, eta Goitiatarren ipuin hori asmatu zuen. Pentsa dezagun apur bat; Lequeitio toponimoa, gutxienez 1325erako ezagutzen da eta Gottiatarrak hona 1490 aldean heldu ziren. Ez zen, beraz, aldrebes izango, hemengo Goitiatarrek Venetora joan zirela (halako teoriak erabiltzen zuten Sabino Aranak eta jarraitzaile batzuek- irakur itzazue, arren, "Hubo euzkos en Italia" artikuluak "Euzkerea" aldizkarian-). Beste guztiak itxura hobea zuen baina... Zakarrontzitik atera behar izan dugu, artikulua, noski, Londonen dugun lagunak, British Library-ko zuzendariak, Sir Rotia Ebruti-k beste grabatu hau bidali digunean. **Jainkoaren bideak ezin asmatuzkoak dira!** Eskerrik asko Koldo, lan bikaina!!!



Luca D'Ascia Gottia bere erakusketaren aurrean, "Paese Vasco. Il segno italiano"



BFAAH Not, Leq, N0016/0511 Cristobal Amezueta, 1602-10-17 Batzuen ustez, Domeca de Larrinaga baten kodizilioaren atzean ezkutaturik agertzen den denbora-pasa honek, Antzar Eguna irudikatzen du. Imaginazio asko behar da horretarako!



British museum-eko  
fitxak zera dio:  
Title (series): *Habiti d'uomini e  
donne Venetiane con la proces-  
sione ...*

Description: Games played in  
Venice during festivals, inclu-  
ding bull and bear baiting and  
catching the goose

Producer name:

Published by Giacomo Franco

Date: 1610

Inscriptions: *Feste che si soglia-  
no fare per la Citta della Caccia  
del foro (txarto dabil, toro da),  
amazzar la Gatta col capo raso,  
pigliar l'anadre, pigliar l'occa  
nell'Acqua, et altro*

"Anadre" eta "occa", ze sofistika-  
zioa! Anadre-ak paluan eskegita  
mutikoek noiz harrapatuko di-  
tuzten zain eta occa-k lepo gogo-  
rrekin zubitxotik dzapart egingo  
duten gazteen erasoak eutsiz.

Jokorik finena, delikatuena an-  
tzarrarena! Gero euskaldunak  
astoak garella entzun behar...

*Feste che si sogliono fare per la Citta' della Caccia del foro, amazzar la Gatta col  
capo raso, pigliar l'anadre, pigliar l'occa nell'Acqua. et altro.*



Miau danori.

#iruzpala gauzatu argitu nahi dodaz:  
Italiako Gottiatarrik ez zen etorri hona. Italiatik ez baina Katalunia aldetik bai. Bai jaun-na! El Dueat de Götia o Marquesat de Götia (en llati Gothia o Gothica; referida també com a Marca Hispànica) és el nom que els frances donaren als territoris conquerits als musulmans entre el 757 i el 801 i que anteriorment havien estat províncies del regne dels Visigots. La Götia la formaven tota l'antiga Septimània visigòtica i la part nord de la Tarraconense visigòtica, mentre que la part sud de l'antiga província va romandre sota domini islàmic...

Arteitarrak ondo ezagutzen nebazan eta makina bat negoziotan ibili bazirian be -eta egija

da Colonen laguna zala Jaigo-, ez dot uste Amerika deskubritu zuenik Baina, horretarako eta gehiagotarako be kapas zan!

Antzarrek noiz hasi zirian gogoratu be ez dot eitten. Italiatik ekarri genduzala, zergatik ez? Eurak badiñue...

Antzarren grabatuak bene-benetakuak dira; Petro Bertelli eta Giacomo Francoren grabatuek ez dute gezurrik esaten. Venezian XVI. mendearan amaieran uretako antzar jokua ezagutzen zala argi geratzen da. Zuen adinekua banintz honetzkeru Veneziaiko arteibo gustijak hainkaz gora egongo zirian!

Beste barik, zuon serbitzura (urte askotarako).

Kurik

